

Noqua!!

H A M A B O S K A R I A

2001ko otsailaren 9a VI.urtea

Usurbil, 106. zenbakia



**Usurbilgo Lanbide
eskolak 25 urte bete ditu**

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Xabier eta Mikel!** Hilaren 7an 13 urte eginak izango ditu batek, hilaren 13an 19 urte beteko ditu besteak. Musu haundi bat!



Igandean 40 urte betetzen dira zkondu zinetela, alajaina! Zorionak eta musu haundi bana gure ama **Mariari** eta aita **Kintini** familia guztiaren eskutik. Egun gogoangarri hura ondo ospatu dezazuela gu guztiokin batera



Zorionak **Garazi!** Otsailaren 5ean 9 urte bete zenituen zure muxe bat etxeko poxpolinari. Etxekoak.



Otsailaren 5ean 45 urte bete zituen **Inaxiok**. Zorionak eta urte askoan etxeko en partetik.



Zorionak **Alex!** Otsailaren 20an 8 urte beteko ditu gure etxeko mutilak. Ondo pasa eta musu haundi bat zure guraso eta anaiaren partez.



Urteaskuan **Inaxi Eizagirre!** Zubietako polifrenak otsailaren 14an beteko ditu urteak. Egun ona pasa dezazula opa dizugu. Muxu asko zure familiaren partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tartea haur erabili dezaketek. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: otsailaren 23an
Ekartzeko azken eguna: otsailaren 16a

Hildakoak



2001-01-29
Jose Luis Cuervo Acero
30 urte
Olarriondo

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

*Oriaraino **Aiaraino
 Asteburutan Asteburutan

Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

Otsaila

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostia.	Larun.	Igand.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28				

● Noaua! aldizkaria

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Erzantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 47 09 76
- Iturralde farmazia 47 09 76
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarteak 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tif. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Eredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zalao Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Usurbilgo Lanbide Eskolako ikasleak

Zabaltzenekin elkartasuna, kulturgileon agiria

Aurtengo urtarrilaren 23an, Garzonen aginduz interbentzio judizial bat egitera sartu dira Zabaltzeneko egoitzan. 19 faktura konprobatu behar omen zituzten eta 158 agiri eraman dituzte, enpresako informazioa, interbentzioarekin zerikusirik ez duena. Ohiko bide judizialek egin behar zen dokumentu eskaera, dozenatik gora funtzionario eta poliziaren bidez egin zen, mediatikoki ohiartzuna izateko asmoz inondik ere.

Garzonen autoak berak noski, eta ondoren prentsan agertu den informazio-zaparradak euskalgintzan diharduen enpresa bat berriro ere ingurune eta testuinguru desegokian kokatu dute.

Bestalde, orain Zabaltzen-ekin egin dutena lehenago AEKrekin eta beste zenbaitekin egin dute. Frogarik gabe saiatu eta plaza publikoan kondenatu.

Ez dira gertakari bakarrak, tamalez. Aspaldi honetan Euskal Herria euskalduntzeko ahalginen kontra modu desberdinetan ari dira jo eta jo, batez ere hizkuntza politika eta hezkuntza sistema propioa auzitan jarritz etengabe: D ereduko irakaskuntza, ikas liburuak eta materialak, AEK, Zabaltzen.

Gertakari hauen aurrean, euskal kultur egile eta eragile garen kantari, idazle, marrazkilari, itzultzaile, bertsolariak gure hitza eta ahotsa altxatu nahi dugu:

- Gure solidaritate eta arnasa eskaintzen diegu oraingoz azken eraso jasan duen Zabaltzeni eta beste hainbeste aurreko guztiei. Ondoren etor daitezkeen erasotuek ere jakin bezate beren ondoan izango gaituztela.

- Behin eta berriz euskalgintza susmopean jartzeko ahalegin jarraitua salatzen dugu. Euskara eta euskararen mundua susmo txarrez kutsatuz, haren hazkundera oztopatzea bilatzen dute.

- Euskalgintzan diharduten enpresa, erakunde, talde eta profesional guztientzat beren jarduera garatzeko normaltasuna bermatzea eskatzen dugu.

- Agintari, alderdi politiko eta gizarte eragileei, eta bereziki hizkuntza eta kultur politikaren arduradunei eskatzen diegu hizkuntzaren eta euskalgintzaren defentsa irmoa egin dezatela eta erakuts dezatela inplikazio publikoa.

- Geure hitza ematen dugu azken hamarkadetan euskalgintzak egin duen aurrerakuntzak eskatzen dituen urrats berriak emanez joango garela euskararen normalizazioaren bide luzean.

Yolanda Arrieta, Juan Luis Zabala, Joan Mari Torrealdeai, Jexux Artze, SEN, Labrit, Antton Olariaga, Arrastalu...



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Lur Etxeberria Gurrutxaga

Manchester-era joan zen duela bost hilabete. Hango bizimodua ez da txarra, baina nahiago du hemen goa. Izan ere hau bezalakorik...



Nolatan hartu zenuen Manchester-era joateko erabakia?

Nik aparejadore ikasketak egin nahi nituen, baina Iruñera joan behar nuen horretarako, OPUS-era eta ez nuen horrelakorik nahi. Donostian hurrengo urterako jarri behar zutela esan zuten, urtebetez ingelesa ikastera hara joatea erabaki nuen. Horrela itzultzerakoan ikasketak egin ahal izango nituen.

Ingelesa ikastera joan zara orduan.

Bai. Ingelesa ikastera eta "bizitzen ikastera" ere bai, noski.

Zer lan egiten duzu?

Orain jatetxe batean nago eta frijigailuan egoten naiz gauzak frijitzen, entsaladak jartzen ere bai...

Hau da han zaudenetik izan duzun lehenengo lana ala gehiago izan dituzu?

Gehiago izan ditut. Hasieran bi astez egon nintzen beste jatetxe batean ontziak garbitzen, baina egunero hamar ordu eta erdi pasatzen nituen lanean eta azkenean utzi egin nuen.

Joan zinenen lana lotua al zeneukan?

Ez, ezer gabe joan nintzen, baina ez da zaila han lana aurkitzea, bigarren asterako lanean hasia nintzen. Hala ere lana txarra izaten da askotan; jatetxetan, tabernetan... Gaizki ez dute ordaintzen, hango bizimodua garestiagoa denez gehiago irabazten baita, baina lan gogorak izaten dira normalean.

Zergatik erabaki zenuen Manchester-era joatea eta ez beste leku batera?

Nire aitaren ezagun bat han dago eta hark ondo zegoela esan zidan, han gainera ikasle asko dago, gazte jende pila bat. Bizitzeko ez, baina denboraldi bat egiteko ondo dago.

Zer bizi zara familia batekin, etxe batean...?

Orain pisu batean nago, baina pasatzen dudana laugarren bizilekua da. Hasieran erresidentzia

batean egon nintzen bi astez, gero beste kolonbiar batekin etxe batera joan nintzen baina ingurua oso txarra zen, arriskutsua, eta handik ere ospa egin nuen. Gero neska ingeles batekin egon nintzen eta orain, neska hori badoanez, berriz aldatu naiz.

Bizilekua hemendik lotua al zenuen?

Bai, hori bai. Erresidentzia batean bi asterako tokia hartua nuen eta gero nire kontura bilatu ditut beste guztiak.

Nolakoa da hango bizitza? Zer du ona? Eta txarra?

Niri berez ez zait hango bizitza gustatzen. Hiri haundi bateko bizitza da, dena presaka eta korrika, jende pila bat... Edifizio haundiak, negozioak...oso industrialak da.

Zer du ezberdina? Zer botatzen duzu faltan hemengo bizitzatik?

Han ohitu egiten zara, baina lasaitasun hori faltan botatzen da; kalera atera eta lasai ibili ahal izatea. Paisaia ere, ezberdina da; han ez dago mendirik, nagoen lekutik ere ez da itsasoa ikusten... Hala ere bere abantailak ere baditu, ez duzu inor ezagutzen eta ez duzu obligazioz kasu egiten ibili beharrik.

Noiz bueltatuko zara hona? Denbora asko gertatzeko asmorik al duzu?

Ez. Lehenengo ingeleseko azterketa bat daukat ekainean eta hori egin ondoren bueltatu nahi nuke. Luzerako gertatzeko aukerarik, behintzat, ez dut ikusten.

Zer esango zenioke kanpora joan nahi eta oraindik erabakia hartu ez duen pertsona bati?

Joateko esango nioke. Esperientzia polita bizi-tzen ari naiz, bere gauza txar eta politekin, baina ona. Hasieran okerrago egon nintzen, baina orain hobeto nago, ohitu egiten zara. Animate egingo nuke, gero ere denbora izango du hemen egoteko.

Olatz Lasagabaster

TXOKOALDE

Eukene Kamino



1956ko otsaila hura

1956koa ez omen zen horrela izan, baino: "Ai enetxoa, otsaila erdia ona eta beste erdia txarra" omen zuten lehen-go zaharrek esaera. Itxura denez, orain dela 45 urte baino eguraldi hobearekin hasi dugu aurtengo otsaila, ordukoa ez omen zen eta broma izan!. Hil oso-osoan elurra eta jela besterik ez omen zuen egin, elurra lehen urtu gabeko jela gainera eta ipar haize hotza egiten omen zuen egunero, zazpi eta zortzi gradu zero azpitik egindako egunak ere ba omen ziren.

Hamaika burduntzi, estalaktita teilatuetatik zintziika ere ikusi ohi omen zen egun haietan, gaur egun Txokoalden parkea dagoen lekua baino pixka bat goraxeago, lehen ganadu aska zegoen aldamenean itu-

ria zuela. Hau hotzaren eraginez lehertu ez zedin irekita utzi omen zuten, eta pixkanaka-pixkanaka ur hau jeltzen joan omen zen honen azpian zegoen errekaraino izugarritzko izotz blokea osatuz.

Gobada harria errekan zegoen eta, nahiz eta izugarritzko hotza egin, emakumeak bertara joaten omen ziren erropa garbitzera. Mendietako pinu guztiak ere ihartu ziren eta hauek kendu eta berriak landatzen nahiko lan izan zuten. Bertakoentzat gehiegi zegoenez, kanpoko jendeak etorri beharra izaten omen zuen lan hauek betetzen laguntzera.

Urte sasoi honetan ganaduari erremolatxa eta harbia ematen zaizkio jateko, besteak

beste. Baina duela 45 urteko otsaila aparta hartan baratze-tako eta soroetako jenero guztia galdu zenez, baserritarrek beraien aziendak, lastoa, artoa eta belarrondoarekin elikatu behar izan zituzten.

Gaur egun bezala, orduan ere Jorge Aizpurua zintzo asko etortzen omen zen auzora egunero bere furgonetan ogiak hartuta, hori bai, San Estebango aldapa igotzea ezinezkoa omen zen bidean zegoen jela-rekin. Otsaila Kataila ere bada (katu hila), hala nahiz eta hotz ikaragarria egin kanpoan katuak kokildu gabe ibiltzen omen ziren jo eta ke miaoka. Hala ere, inkomunikatuta ez zen geratu auzoa, tren egunero pasatzen baitzen.

KALEBERRI

Ines Kamino



Herria mozorrotuta

Inauteriak gertu ditugun honetan, kaxkoa ere nahikoa "mozorrotuta" daukagula esan beharra dago. Izan ere, oraintxe nahiko lan dugu herri-za zein sarreratik sartu asmatzen. Zorionez, Zubiaurrenea inguruko errotonda amaitzeko ez da asko falta, dagoeneko alderdi bat ireki baitute.

Baina goraxeago jota ere "antzeko panorama-rekin" topo egiten dugu. Izan ere, Gaztainaga etxe pareko bidea zabaltzen ari baitira. Egia esan bide hau nahiko estua zen eta, beraz, moldaketa hauek ez dira batere gaizki etorriko. Hala ere, Gaztainagakoek atzemango dute,

baratza zati garrantzitsua kendu baitzaie lan hauek aurrera eramateko. Tomateen kaltetan, kotxeak hobe.

Herria mozorrotuta izanik, herritarrek ere bide bera jarraitu behar! Gogoratu datorren



otsailaren 24an inauteri festa izango dugula herrian. Aurtengo gaia, berriz, Akelarrea eta Euskal Mitologia izango da. Beraz, bdakizue, prestatu zuen mozorroak eta atera festara.

Gainera, oraindik festa hau antolatzeko bilerak ere martxan dira, beraz, hauek ere parte hartzea behar izango da. Egia esan, egun horretan Anoetan Negu Gorriaken kontzertu erraldoia dagoela kontuan izanda, inauterietako antolatzaileek beste urtetan baino jende gutxiago espero dute. Baina gutxi izanda ere, parte hartzea eta gogoia nahikoa dira parranda on baterako.

KALEZAR

Ainara Uribe



Zurrumuruak hizpide

Txoko hau idazteko oraingotan "ikerkuntza lanetan" aritu behar izan dut, ikerkuntza kazetaritzaren haritik.

Izan ere, auzo honetan (baita herri honetan ere) zurrumuruak segituan zabaltzen dira eta, gainera, normalean indar haundiarekin. Informazio bide honetatik, zurrumuruen bidetik alegia, zera iritsi zen nire belarrietara: mojen konbenturen alboko eraikuntzan, libre dagoen etxe horretan, "Gizakia helburu" (Proyecto Hombre) delako egitasmoa berriz ere martxan jarri behar zutela.

Hala, ni "lotsagabeki" zuzenean joan nintzen mojengana, informazioa ziurtatzeko asmotan. Ama Nagusiarekin hitz

egin nuen, zituzten asmoen berri jakiteko asmoz. Honek segituan esan zidan, oraingoz, ez zela ezer aldatuko, orain arte bezala jarraituko zutela.

Beraz, eta nire ikerketa "saltserotik" ondorioztatuta koaren arabera, oraingoz ez da "Gizakia helburu" proiekturik izango Kalezarren.

Lastima! Izan ere gogoan dut garai batean proiektu hau auzoko eraikuntzan zegoenean jende gazte ugari ibiltzen zela auzotik eta honek bizia ematen zion Kalezarri. Pasea-



tzen ibiltzen ziren, Peña Pagolara ere gerturatzen ziren zerbait hartzera, auzokideekin solasaldian aritzen ziren... mesede beraiantzat, trantze txar batetik irteteko ahaleginean zebiltzalako eta mesede guretzat, aurpegi berriek beti alaitzen baitute auzoa.

ATXEGALDE

Non ote daude

Zenbatetan eskatu ote diot trikitilariari hain gustuko ditudan letra hauek musika ditzan soinu txikiarekin? Non ote daude gure aspaldiko lagunak,...

Eskaera horietan guztietan, ordea, ez nuen pentsatu ere egiten abesti honen tituluak nire auzoaren inguruko hausnarketara bultzatuko ninduenik.

Nire aspaldiko lagunak badaukit non dauden, gertu. Ez dakit, ordea, gure jolasen testigu ziren plazako oroitzapenak. Hauek ez hain gertu, ziurrenik. Eta urruntasun honen jatorria ez da gu ere adinean aurrera goazela. Izan ere, atxegaldetar gazteen jolasak, bihurrikeriak eta istorioak aspaldi bereganatu baitzituen herriko kaxko-

ak. Guztiok berezkoa dugu kanpokoa eta handiago den hori hopea dela pentsatzeko joera, Ñoñostia mitifikatzeko ohitura kasu.

Gure auzoko hurrek ere halaxe pentsatuko dute, nola ulertu, bestela, Atxegaldeko plazaren bakardadea? Garai batean, auzoko bi plaza txikiak lehenengo eta ikastolako patioa, beranduago, izan ziren gure jolasen gune. Bateko kristalak eta besteko hortzak, guztiak, auzoan bertan hautsi genituen. Lehenengo amodio eta desamodioak ere askok eta askok Ageri-Alde inguruko autobus geltoki txikian bizi zituen. Hau ziurta dezaket nik eta baita nire solasaldi lagun ziren beste "saltsera" batzuk, gu baikin, gaua etortzeare-

kin bat, amodio jolas horien ikusle ezkutuak.

Orain, berriz, ez da haur zarata nagusi aipatu txokoetan. Hurrek eta hauen gurasoek nahiago baitute frontoi haundiko jendetza arratsalde pasak egiteko. Auzoa bera lotoki soila bihurtzen ari dela esatera ausartuko nintzateke. Nik neuk, egunerokotasunaren joan-etorrian, ohea baino ez baitaukat atxegaldekoa. Adin gazteetan, ordea, garrantziak dira etxetik gertuko istorioak. Pentsa bizikletatik erori eta "ama" ohiukatuz kaxkorik auzora etorri beharra? Edota zure lehenengo muxuaren gorritasunak ezin kendu heritik Atxegalderako pasadizu osoa egin beharra?, diferentzia ederrean Ageri-Aldeko txokotik, ttak!

Amagoia Mujika



SANTUENEA

Gure sagardotegia

Isaak Muñoz



Azken denboraldi honetan behi eroak gora eta behera dabilta. Batzuek oraindik konfidantza guztiarekin haragia erosten dute, baina nork ez luke bitan pentsatuko eta, behia erosi beharrean, arkumea edo txerria erosi? Hori harategietara joan eta behi kostumoa jaitsi den edo ez galdetu beharko genuke. Hala ere, badakigu euskal behia kalitatezkoa dela eta ez daukagula inolako arazorik.

Sagardotegietan, behintzat, ez dirudi behiaren kontsumoa jaitsi denik. Hezurarekin edo gabe, txuleta, berdin jaten dela ikusten da. Orain dela

denbora gutxi hasia da sagardotegi garaia eta honek gure auzoan ere eragina izan du. Orain dela urte gutxi sortua da auzoko sagardotegia, poliki-poliki eta urtez urte handitzen doana. Astegunetan zein asteburuetan sagardotegi inguruak kotxez beteta agertzen dira. Txuleta errearen usaina ere nabarmena da. Egia esan, gure auzoarentzako oso polita da sagardotegia izatea. Orain falta zaigun bakarra gosea egiteko frontoia da.

Bestalde, eta gaia zeharo aldatuz, lehengoan Noaua!n idazteko gai bat proposatu zidaten. Herrian dauden futbo-

lean aritzeko gune guztietan porteriak daude, Udarrekin, Ageri-Alden...baina Santuenean futboleant jokatu nahi izanez gero, porteriak asmatu egin beharra dago. Denok dakigu porteriak gordeta daudela, baina noiz ateratzen dira hauek? Egia esan, ia inoiz. Orain dela urte batzuk, eskubaloitako partidak auzoan jokatzen zirenean, porteriak ateratzen ziren. Baina orain ez dira ikusi ere egiten. Gauza bera gertatzen da saskibaloiko uztaietara. Duela urte batzuk finkoak baziren ere, bada denbora asko hautsi zirela eta ez dituzte konpondu. Auzoak benetan eskertuko luke hau konpontzea.

URDAIAGA

Santa eskean

Joseba Zubeldia



Santa Ageda eguna aste honetan izan bada ere, berandu antzera Udalarri eskaera bat egiteko baliatuko dut tartetxo hau.

Orain dela urtebete edo, kontu berdinarekin abiatu nuen txoko hau eta, beharra ikusten dudanez, berriro aipatzea erabaki dut. Ba, kontua zera da, auzo honetako errepideak, bai Santueneatik eta bai Txokoaldeetik igotzen direnak, oso ilunak direla eta argizatzeko premia dutela.

Zubietako errepidean gertatzen den bezala,

errepideen zabalera oso handia ez bada, gero eta jende gehiago ibiltzen da errepide hauetan (oinez, txirrindaz...),



oso ibilaldi politikak egin baitaitezke erriberako errepidea aprobetxatuz.

Baina askok ilundu eta gero izaten dute paseotxo emateko aukera eta beraien paseoa itxusitua geratzen da erabat argitasun ezagatik eta hau arriskutsu samarra ere gerta daiteke autoen joan-etorria dela eta.

Horregatik, nire eskaera horixe litzateke, auzo honetatik igarotzen diren errepideak argiztatzea. Oraingoan zorte gehiago izango dugulakoan (bestela hurrengo batean berriro saiatu beharko) agurtzen natzaizue.

AGINAGA

Iratxe Begiristain



Tximistaren zartatekoa

Urtarrilaren 30an izan zen. Arratsaldeko 15.30ak aldera, asko siestan eta beste asko bazkalosteko kafea hartzen ari ginela. Zerua ilun zegoen, haserre antzera, hala ere ez zirudien trumoi edo tximisten tanke-rarik, euri pixka bat agian.

Golpera, izugarrizko danbategoa entzun zen Aginaga osoan, leherketa baten antzera. Etxeetako koadro elektrokoetatik ere txinpartak irten ziren.

Azkenean jakin ahal izan genuen tximista batek bete-betea jo zuela herrian.



Orduan azaltzen hasi ziren tximistaren ondorioak eta sorturiko kalteak. Badirudi Oroitzape-na etxean jo zuela eta oraindik erraz ikus daiteke etxearen aurrealdean tximistak eginiko zuloa.

Ez da ez izugarria, baina bai 20 bat zentimetroko diametroa duen zirkulua. Hau justu telefono hariaren gainean dago. Hara hemen, haririk gabeko telefono guztiak erretzearen arrazoia. Telebistak eta bideoak ere kiskalita edo zapuztuta daude, baita telebista antenen anplifikadoreak ere.

Orain, auzokoen artean istorioa farregarri modura kontatzen da, baina ez ziren ez egun hartan horrelako aurpegiak: bat baino gehiago siestatik susto galantarekin esnatua bail!

ZUBIETA

Olatz De Miguel



Ohiko lasaitasunaren faltan

Badirudi azken hilabete hauetan zubietarrok ez garela obretako hauts eta zaratez libratzen. Betidanik hain lasaia izan den paraje hau kamioi desfile batean bihurtu zaigu azkenaldi honetan, mota guztietakoak ikus baititzaizkegu goizez zein arratsalde. Eta gauzak horrela jarraituz gero, ateratzen duten soinuagatik ere bereiztuko laister. A ze panorama!

Hasieran elizaren konponketa bazen, orain hau bukatzeaz dagoela oraindik ere hor ditugu hipodromoan ari diren kamioiak aurrera eta atzera. Hauek gutxi balira, lanbide

eskolan ere ez dira lan makala egiten ari, lurra kendu eta kendu. Batzuei nahikoa eta soberan irudituko zaizue, baina ala iruditzen ez zaionarentzat ere, lasai gelditu dadila, bada-go eta gehiago; Lasarten bidean ari diren lanek Lasarteko sarrera eta mugitzeko aukerak murrizteaz gain, Zubietako sarreran ere badituzte bere ondorioak, Zubietara iritsi edo bertatik ateratzeko egin beharrekokoak ohiko bide baino gehiago abentura bat baitirudi.

Noiz bueltatuko ote da Zubietara bere ohiko lasaitasunera? Ez dakit ez ote dugun udara arte itxaron beharko, eta ordurako ere guztia bukatuko balitz sikiera!



Herriko kaleak garbi mantentzeko ahaleaginean

Herria txukun mantentzea guztion lana da. Azken hilabete hauetan nahikoa hauts eta lokatz biltzen da obrak dauden inguruetan, baina herritarrok ere ez dugu behar adina laguntzen kontu honetan. Zaborra ateratzeko ordutegia, adibidez, ez da errespetatzen eta udala hori zuzendu nahian dabil.

Udalak zaborra ateratzeko ordutegia errespetatu dezatela eskatu nahi die herritarrei. Zabor poltsak arratsaldean edo gauean ateratzen dituzte asko eta askok, baina udalak horretarako ordutegi bat dagoela gogoratu nahi du. Zabor poltsak goizeko 5.00etatik 8.30etara utzi behar dira betiko lekuetan eta altzari zaharrak ostegunetan atera behar dira goizeko 8.00etarako. Hala ere,

herritarrek ordutegi hau gogoa izan dezaten panel batzuk jarriko dira zaborra jasotzen den lekuetan.

Bestalde, herria pixkanaka-pixkanaka haunditzen ari denez eta kale garbitzaileek gero eta lan gehiago dutela ikusita, hauen ordutegia aldatzea erabaki du udalak. Hilabete batez, proba moduan, kaleak garbitzeko ibilgailua ordu eta erdi gehiago ibiliko da egunero herriko kaleetan, goizeko 6.00etan hasi eta 15.00ak arte. Orain arte astean bitan pasatzen ziren herriko auzoetatik, baina ordutegi aldaketa honekin astean hirutan joango da ibilgailua auzoetara. Horrez gain, industrialdeetara ere maizago joango da kaleak garbitzeko udalak erabiltzen duen ibilgailua.



Motzean

□ Azken hilabeteotan trafiko arazo ugari sortzen ari da herrian. Paris etxe atzeko parkea egiten eta Kale Nagusia 10eko urbanizazioa berritzen hasi zirenetik bideen norabidea aldatzeaz gain ibilgailuak apartatzeko arazoak izaten ditu jendeak. Horrez gain, Gaztañaga aurrean bidea zabaltzen ari dira eta hor ere ezin da ibilgailurik utzi. Honen aurrean pazientzia pixka bat eskatu nahi dute udaleko ordezkariak. Jendeak kaxkoan edozein tokitan uzten du kotxea eta bien bitartean Oiardo kiroldegiko eta anbulategi ondoko apartakalekuak hutsik egoten dira.

□ Kale garbitzailea eta eraikin garbitzailea kontratatuzko prozesua aurrera doa. Behin-behineko zerrenda osatua dago eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) azaldu ondoren alegazioak aurkezteko hamar eguneko epea izango da. Behin-betiko onespena eman eta GAO-n azaldu eta tribunalkideak aukeratu ondoren martxoan izango dira azterketak.

□ Udalak euskara, kultura eta gaztedia sailerako teknikari bat hartzeko oinarriak onartu zituen pasa den urtarillaren 30eko udalbatzan EHko ordezkariaren eta PSOEkoaren onspenarekin. EAKo ordezkariak abstenitu egin ziren eta EAJ-PNVkoek erabaki honen aurka botua eman zuten.

Kale Nagusia 35
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 15

Zendoia enea
Taberna

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, .

Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

P A T R I
J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

L A B E - G O X O

Daukagun guztia jaten badugu aberatasunik gabe gelditzeko arriskua

Ainara, Maialen eta Oihana Sagarna Herriko lurren erabilera eta jasangarritasunaren inguruko lan bat egiten ari dira udalak "Gaztelu beka" beraien eman ondoren. Bertan, Usurbilen eta inguruko herrietan urbanizazio prozesuan lurren erabilera nola eman den eta honela jarraituz nora iritsiko ginatekeen aztertu nahi dute.

Lurra ballabide urria da eta ezin da berriztatu. Erabilera bat ematen zaionean eta zerbaitetarako urbanizatzen denean urte askotarako beste hainbat gauzetarako ezindua gelditzen da. Azken urteetan lurren okupazioa izugarri ari da hazten eta hortarako natur guneak, nekazal lurak etab. galitzen ari dira.

Lurra antolatzekeo tresna juridiko urbanistiko batzuk daude Sagarnatarren esanetan. "Tresna horiek udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak erabiltzen dituzte. Horren gainetik, orde, interes ekonomikoak eta komertzialak daude. Guk udalak indarra hartu eta tresna horiek eskuratu ditzan saiakera bat egin nahi dugu. Herri-tarrak zer datorren jakin behar dute eta horren aurrean zer egin nahi den erabaki. Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak etorri daitezkeen plangintzen aurretik erabaki behar da zer egingo den".

Zubietan, adibidez, plan partziala onartuta dago, baina ondorengo plangintzetan urbanizazio horren jarraipen bat egiteko asmoa dute, trenbidearekin etab. "Horiek

guk erabakitzen ez ditugun planak dira. Herri-tarrak, agian, Zubietan nekazal paisaia bat mantentzea interesgarria dela pentsatu dezakegu. Guk nahi izan gabe gauza asko egiten direla ez gara konturatzen, onartzen dira eta punto, ez da ezer gertatzen".

Lan honetan maila guztiak kontutan hartuta zer plangintza dauden, zer tresna dauden ikusi eta horien arabera Usurbil zer egoeratan dagoen aztertzen ari dira. Etorkizunerako Usurbilen eta Donostialde osoan dauden egitasmoak aztertu eta egoera horretan beste lekuetan zer gertatu den, zer aukera hartu dituzten, zer ondorio izan dituzten azaldu eta Usurbilen antzeko zerbait gatzatu daitekeen aztertu nahi dute.

Usurbil noruntz dijoan ikusteko jendearentzat adierazgarria den zerbait ere egin nahi izan dute. Duela 50 urte Usurbil nola zegoen, gaur egun nola dagoen eta hemendik 50 urtera gutxi gora behera nola egongo den ikusteko grafiko batzuk egiten ari dira.

"Plan guztiak ikusita, non gauden jakinda eta mundua nola dijoan ikusita 2050 urtean Usurbil nola egongo den agertuko duen plano-a egin daiteke eta beldurtzeko modukoa da. Momentu honetan denon buruan dago etxe promozio berria, industrialdea berria etab. egitea aberasgarria dela, baina kontuz nola egiten ditugun, daukagun lur guztia, betidanik ezagutu dugun nekazal paisaia... daukagun guztia jaten badugu azkenean aberastasunik gabe

geldituko gara". Lan honetan hori gertatu ez dadin zer aukera dauden azaldu nahi dute. Azken finean, plantetzten den erabilera zer eragin ekarri ditzakeen eta herri-tarrak honelako lurak babesteko zer egin beharko genukeen argitara eman nahi dute.

Lan hau apirilerao aurkeztu behar dute udalean. Beraien ustez honelako lan bat udal mailan gelditzen bada ez du eraginik izango, baina herri-tarrak lan honen nondik norakoa jakitea da beraien gustatuko litzaiekeena. "Guk planteatzten dugun ideia hau herri oso batek bereganatzen badu eraginen bat izan dezake, aurrera atera daiteke. Horretarako hitzaldi batzuk antolatzea eta panel batzuk jarzea izango litzateke ego-kiena".



ERRAZKIA

Igeltzeritza orokorra

Kale Nagusia, 1
Tel: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santueña Mob: 629 42 05 65

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

N • I

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

Aezkoa bailarako "Irati irratia" bizirik mantentzeko anaiarteko eguna

Bada Aezkoa bailaran "Irati" izeneko irratia bat. Komunikabide hau da, uhinen eta bertako euskalzaileen bitartez, bailara eta euskara bera bizirik mantentzen saiatzen dena. Astean bost egunez 11.00etatik 14.00etara hartzen du bizia, baina azken urteetan bere egoera ez da oso ona. Aitzaga elkarteak laguntzatxo bat eman nahi izan dio eta horretarako irratia honen aldeko eguna izango da otsailaren 11n. Bertako esataria den Karmelek irratia honen nondik norakoak kontatu dizkigu.

Noiz eta nola sortu zen Irati irratia?

Duela zortzi urte sortu zen, 1993ko urtarrilaren 23an eman baitzen lehen irratsaioa. Iratia bat erosita zegoen eta euskalzaile talde batek hau martxan jarzea erabaki zuen. Aezkoa bailaran euskara gainbehera zihoan eta desagertpenaren arriskua ikusita irratia euskara suspertzeko bide bat izan zitekeela erabaki zuten.

Zenbat orduko irratsaioa egiten duzue?

Hasieran bi orduko emanaldia egiten zen, baina azken urteetan astegunetan 11.00etatik 14.00etara entzun daiteke Irati irratia. Larunbatean ere bi ordu eta erdiz jarduten dugu. Bailara honetako jende askok bailaratik kanpo egiten du lana eta larunbate-



tan jai izaten dutenez asteko errepassoa egiten dugu. Arratsaldetan saio bereziak ere egin izan dira, baina gaur egun bere ordu onenetan ez dagoenez alde batera utzi behar izan ditugu irratsaio berezi horiek.

Zer gai jorratzen dira Irati irratian?

Irratsaio oso ezberdinak egiten ditugu. Asteburuan pasatutakoa kontatu, bailarako zaharrei elkarrizketak, historiari buruzko programa, nekazarien egoerari buruzkoa, bailarako ikasle eta irakasleek egiten duten irratsaioa...

Dena euskaraz egiten al duzue?

Ez, gaztelaniaz ere bai. Irratsaioak euskaraz izan daitezen ahal dugun guztia egiten dugu, baina hemengo jende

askok euskaraz hitz egiten ez duenez tertulia eta elkarrizketa batzuetan erdara erabiltzera behartuak gaude.

Zein da Irati irratiaaren egoera momentu honetan?

Ez dago momenturik gozoeanean. Nahikoa gaizki entzuten da, irratia mahaia eta beste makinaria zahartuta daude... Hala ere, hau konpontzeko ahaleginak egiten ari gara. Proiektu bat egina dago eta Erroibarrek laguntza ematea onartu du. Aezkoako batzarrik, berriz, hurrengo bileran laguntza emango digulakoan gaude. Aezkoa bailara osoan, Erroibarren, Auritzen eta Orreagan entzuten zen orain arte, baina orain nahikoa gaizki entzuten da leku guztietan. Proiektu berriarekin badirudi Zaraitzuraino ere iritsiko direla gure hitzak.

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95



Beheko kalea. 4
Telf: 943 36 57 42

**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**

**FRUTAK
BARAZKIAK
ETKEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK**

**JOSUE
ARANZAZISTROKI**

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea. 6 Telf: 943 36 05 50
Kalezar 606 37 21 05

Jexux Uribe eta Joxe Martija musean garaile

Pasa den urtarrilaren 27an jokatu ziren Mahaspildegi elkartean Usurbilgo Elkartearen arteko III. Mus Txapelketako azken partidak. Zortzi elkarreetako bina bikote ziren lehia eta azkenean Kalezarko Peña Pagola elkarteko **Jexux Uribe eta Joxe Martijak** irabazi zuten txapelketa. Bigarren postuan Eguzki elkarteko **Guadix anaiak** gelditu ziren, Ibai Ondoko **Azkonobieta eta Etxabek** eskuratu zuten hirugarren postua eta Yoko Garbiko **Goenaga eta Iturriozek** laugarrena. Antolatzaileek bereziki dipatu eta eskerrak eman nahi dizkie sariak jarriaz beren babesa eskaini duten jate-txeak: Aginaga sagardotegia, Alaman-degi, Antxeta, Atxega eta Saltxipi. Hurrengo txapelketa Peña Pagolak antolatu beharko du, eta okerrik ez bada aurtengo udazkenean izango da.



Jose Luis Cuervo usurbildarra Aginaga eta Orio artean izandako auto istripu batean hil zen pasa den urtarrilaren 29an. Ezbeharrak goizaldeko 5.10 aldera gertatu zen Oriorako bidean Sarikola pasa ondoren dagoen zuzengunean bi autok aurrez aurre jo zutenean. Kolpearen ondorioz, 30 urteko usurbildarra bertan hil zen. Ertzantzak istripuaren nondiko norakoak argitu ahal izateko testiguen laguntza eskatu du. Horretarako 943 449119 telefonora deitu.



Oraingoan ere Etumeta AEK euskaltegiak otsaileko matrikulazio kanpainari ekin dio. Klaseei dagokionez, oraingoz ordutegi guztia zabalik daude, bai goizean, eguerdian eta arratsaldean, alegia. Euskalduntze, alfabetatze eta EGA mailak eskeintzen dira. Jakinarazi bestalde, udalak diru laguntza ematen diela langabetu eta ikasleei. Matrikulazio epea zabalik dago eta otsailaren 28an amaituko da. Informazio gehiago 943 37 20 01 telefonon.

ITURGINTZA

JOSEBA ARANGUREN

 Telf: 943 3643 64

Urtinea
Loreak - Lore landareak
Lore sortak - Koroak
 San Esteban
 Tlf.: 943 36 22 55

IGELTSERITZA
URDANTZI, C. B.
 Mugikorra: 649435475
 649435476
 ☎ 943 363370- 361439

Imanol Zumeta: "Lehen jende gehiagok jokatzeko palaz"

Herritarrak gomazko pelotarekin palaz jokatzeko askotan ikusi izan ditugu frontoian. Hor hasi zen Imanol Zumeta ere. 14 urte zituela eskuratu zuen herriko lehen txapelketa eta ondoren antolatatu izan diren txapelketetan askotan eraman du txapela burura. 38 urte bete ditu dagoeneko, baina oraindik ere han eta hemen pala txapelketetan parte hartzen jarraitzen du, maila onean gainera.

Duela 24 urte hasi omen zinen palaz jokatzeko.

Hasieran eskuzko pelotan ere jokatzeko nuen. Nahiko ondo ibiltzen nintzen, txapelketa bat ere irabazi nuen, baina orduko arduradunek beste batzuk aukeratu zituzten. Garai hartan jende askok jokatzeko palaz gomazko pelotarekin eta gu ere dexente ibiltzen ginen. 14 urterekin 15 urtetik beherakoentzat egindako txapelketa irabazi nuen Joxe Miguel Begiristainekin.

Txapelketa hartan jokalaria onenaren saria eman zizuten ezta?

Gauza xelebrea gertatu zen. Bikoteak orekatuak izateko txarrekin eta onekin bi mul-tzo egin ziren. Bikotea txar batek eta on batek osatzen zuten eta ni, ezezaguna nintzen eztab. txarren artean sartu ninduten. Guk nahikoa erraz irabazi genuen txapelketa eta niri jokalaria onenaren saria eman zidaten.

Urte batzuk beranduago ere txapeldun izan ziren.

Handik bost urtera antolatatu zen hurrengo txapelketa.

Joxan Labaienekin jokatu nuen eta orduan ere garaipena lortu genuen. Ondorengo bospasei txapelketak ere eskuratu genituen.

Noiz hasi zineten kanpoko txapelketak jokatzeko?

Txapelketa horien ondoren Oiartzungo txapelketara joan ginen. Guk maila oso ona genuen, baina jokatzeko era zeharo ezberdina zen. Gure jokoa ikusgarria zen, tanto onak egiten genituen, baina galdu ere bai. Herrian txorakeriak egiten genituen, baina txapelketa eskuratu genituen; kanpoan, ordea, gure akatsez baliatzen ziren.

Garai haietan orain baino gehiago jokatzeko palaz ezta?

Orduan kirol aukera gutxi zegoen eta zegoenari heltzen genion. Astean bitan ibiltzen ginen eta asteburuetan ere bai batzutan. Hala ere lehen palaz jokatzeko afizio gehiago zegoen, orain baino jende gehiago ibiltzen zen bai asteen zehar eta baita asteburuetan ere. Hori bai, negua iristen zenean euriagatik etab. ezin zen jokatu.

Zuk, ordea, inguruko txapelketak jokatzeko jarraitzen duzu.

Afizioa dudalako, bestela... Oronoz, Lesaka, Deba, Zumarragan etab. joana naiz txapelketak jokatzera, baina jendeak orain afizio gutxiago duela ikusten dut. Astean zehar entrenatu gabe txapelketatik txapelketara ibiltzen dira

gehienak eta maila asko jeitsi da. Nik ere familia dudanetik ia ez dut entrenatzen eta hori nabaritzen da. Hala ere, azken urteetan Altzan, Urnietan, Astigarragan zenbait txapelketa irabazi ditut. Orain Urnietako txapelketa jokatzeko hasi gara, ikusiko dugu zer egiten dugun.

Gipuzkoako mailako klubaren arteko txapelketan ere bazabiltza ezta?

Aurten hasi naiz. Real Sociedad-ekin daukat fitxa. Beraiek ordezkatzeko jokatu nahi al nuen galde-tu zidaten eta aurten hasi naiz. Hala ere, Gipuzkoa mailako txapelketa bakkarririk jokatzeko dut, klubak federazioarekin dituen arazo batzuegatik ezin baitugu Euskal herri mailako jokatu. Orain Udaberriko txapelketa jokatzeko ari gara.





Eskubaloia

2. nazionaleko taldea zuzperten hasi da denboraldi hasiera kaxkarra izan ondoren. Azken hiru partidatan garaipena eskuratu dute eta pixkanaka-pixkanaka azken postuetatik ihes egiten ari dira. Iaz eskubaloia utzi zuten jokalariek batzuk berriz ere taldean sartu dira (Aitor Arruti, Eneko Salsamendi..) eta horrek taldea egonkortu du. Bestalde, jubenil eta kadete mailako mutilak Euskal ligara sailkatzeko borrokan sartuta daude.



Aizkolaritza

Joxe Miel Peñagarikanok Bi-bitako Urrezko aizkora irabazi zuen Floren Nazabalekin batera pasa den otsailaren 4an Azpeitian. Kanporaketetan jaun eta jabe izan ondoren beraiek ziren faborito nagusiak eta finalean ez zuten huts egin. Horrez gain, Peñagarikano berak jaso zuen txapelketako aizkolaririk onenaren saria. Beizamakoak hiru txapel jantzi ditu azken sei hilabeteetan: Abuztuan Urrezko Kopa irabazi zuen, urrian Euskal Herriko txapela, eta orain Bi-bitako Urrezko aizkora.



Futbola

Andoni Iraola usurbildarra Kanariar uharteetako Las Palmas hirian jokatu den Atlantiko Kopan Espainiako 18 urtez azpiko selekzioarekin parte hartzeko deitu dute. Oraindik jubenil adina badu ere, Andonik Athletik taldearen esku dagoen Baskonia taldean jokatzeko du 3. mailan. Duela bi urte arte Antiguoko taldean egon zen, baina iazko denboraldian Athletikek Bilbo aldera eramatu zuen jubeniletako taldean jokatzeko.



Emaitzak

Futbola neskak

Urtarrilak 27-28

Luberri **0** - Usurbil F.T **2**

Otsailak 3-4

Usurbil F.T **1** - Zarautz **0**

Eskubaloia

Urtarrilak 27-28

Usurbil K.E. 97 **22**-Escolapios **17** (2.N.)

Egia **24** - Usurbil K.E. **15** (ju.m)

Elgoibar **16** - Usurbil K.E. **16** (k.m)

Otsailak 3-4

Arabacan **16** - Usurbil K.E. **27** (2.N.)

Usurbil K.E. **17** - Almen **18** (ju.m)

Zarautz **15** - Usurbil K.E. **18** (ju.n)

Usurbil K.E. **21** - Almen **13** (k.m)

Futbol aretoa

Urtarrilak 27-28

Pello Arraind. **2** - Txotx **11**

Ainse - **1** Antxeta **3**

Intxurre **4** - Aitzaga **0** (Ju.n)

Otsailak 3-4

Txotx **1** - Makax **11**

Antxeta - **1** Bilkoin eredu **5**

Mikelson **12** - Pello Arrain. **2**

Hondartzako futbola

Urtarrilak 27-28

Aginaga Sag. **2** - Uhinak **1**

HAUR JANTZIAK
MERKEALDIAK!



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

Pinturas
Ion



943 83 09 37 ☎ 670 397504

Alejandro Tapiaren erakusketa Udarregin

Mihixe Pintura Eskolak beste erakusketa bat antolatuko du otsailean. Agaterena izan zen lehenengoa, eta oraingoan Alejandro Tapiaren txanda izango da. Hilaren 18tik 25a bitartean Udarregi zaharreko aretoan ikusi ahal izango ditugu margolari ezagun honek lanak.

Artisten begiek gutako askok ikusten ez dutena ikusten dakite. Edozein sentimendu, gauza, toki eta sentipenetik abiatuta interpretatu eta sortzen dute. Mihixe batean gauzatzen dute beraiek nahigabetzen, dardarazten edo izuarazten duten hori eta barrutik kanporako bizitasuna da horren emaitza, beraien nortasun biluztuenera gerturatzeko gaituen behin-betiko sortze lana hain zuzen ere.


Gure begiek begiratu gabe ikusi dezaketela badakigu.

Ikusi dezakegu baina ulertu ez artistak erakusten diguna, baina badago ahaztu ezin dugun zerbait: begiek oroimena dute, hatzek buruz ikasten dute, eta sentsibiliteak ere oroimena badu. Bat zaharragoa egiten bada ere sentsibilitatea poroetatik isurtzen delako eta oroimenak paisaia harrigarriak margotzen dituela dirudielako diot hau.

Hori da! Koadro baten aurrean jartzen garenean utzi dezagun adimena hutsean, utzi gure begiei ikusten, utzi gure hatzei artistaren lerroetan ibiltzen, utzi gure sentsibilitateari pintatu duenaren arimaren zati bat hartzen...

Otsailean Tapiak, apirilean Jose Luis Zumetak eta ekainean Arrastaluk aukera hori emango digute.

Mihixe Pintura Eskola



Inauteriak Usurbilen



I nauteriak gainean ditugu. Nafarroa beheko joaldunen hotsa herriraino iritsi da dagoeneko eta inauteri eguneko egitaraua osatzen hasiak dira ja. Aurten otsailaren 24an izango da inauteri festa. Egun berean Negu Gorriak taldearen kontzertua omen da Anoetako belodromoan, baina tira, izango da herrian zertan gozatua. Hasi, beraz, trapu zaharrak kutxa zaharretik ateratzen gaia zein izango den ere erabaki da eta: akelarrea, euskal mitologia eta inkisizioa.

Egitaraua osatzeko, ordea, beste bilera bat izango da datorren otsailaren 9an udaltxeko pleno aretoan. Oraingoz antzezlan txiki bat egiteko asmoa dago, baina horretarako jendearen parte hartzea inoiz baino garrantzitsuagoa izango da. Beraz, badakizue...

Kalkos kopisteria

- ☞ Fotokopiak
- ☞ Fotokopiak koloretan
- ☞ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☞ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☞ Planoen kopiak (AO arte)
- ☞ Ordenadoreko lanak
- ☞ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ☞ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

Euskal presoak etxera!



Lehiaketa



Zer dago faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean
Antxeta tabernan bi
personentzat afaria
zozketatuko dugu

Aurreko argazkia



...eta erantzuna



105.aleko irabazlea: Arantxa Alkorta Zabala

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

**GALARRA
GARRAIO**

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Publizitatea hemen
jarri nahi baduzu,
deitu 943 36 03 21
telefonora!

OTSAILAK 10 larunbata

- Parrokiko dorrearen berri- tzea ospatzeko ekitaldia dema plazan dorre aurrean.

19.30etan: **zenbait kanpai errepika, dorrearen zehaztasun batzuk emango dira, argiak piztea, bertsoak, eskertza eta Irriu abesbatzak "Usurbilgo Elizaren hormak" atia** abestuko du.

20.00etan **Eukaristia**.

OTSAILAK 11 igandea

- Irati irratia **aldeko eguna**.

11.30etan **Orbaizeta eta Usurbilgo pelotarien arteko norgehiagokak** benjamin, alebin, infantil eta nesken mailetan.

Ondoren **herri bazkaria**. Bazkalostean tertuli giroan irratia **kontuak**, Aezkoako kontuakentzuteko aukera kafea har- tzerakoan.

Goizean **Baigorriko gaiteroak**.

OTSAILAK 12 astelehena

- Euskal prozesu demokra- tikoaren **aldeko konzen- trazioa**. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

OTSAILAK 18 igandea

- **Alejandro Tapiaren pintu- ra erakusketa** irekiko da Udarregi zaharreko areto- an. Usurbildarraren lanak otsailaren 25a bitartean egongo dira ikusgai.

OTSAILAK 19 astelehena

- Euskal prozesu demokra- tikoaren **aldeko konzen- trazioa**. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

OHARRAK

✍ **Irakasle espezializatuek klase partikularrak ematen dituzte** Usurbilen bertan. DBH, Batxilergoa, zientziak nahiz letrak. Esperientzia. Interesa duenak deitu 943 36 52 89 telefonora (Koro).

✍ **Neska bat behar da etxekolanak egin eta haurrak zaintzeko**. Deitu 943 37 29 38 telefonora (gauez).

✍ Kabalgata ekitaldian **pis- zinako gauzez betetako motxila bat galdu zitzaigun** frontoian. Aurkitu duenak 943 37 27 76 telefonora dei dezake.

✍ Rossignol markako snow board tabla salgai. 152 zentimetrokoa eta fijazioekin. 30.000 pezeta. Telf. 943 36 51 80

ANDATZA KIROL KULTUR ELKARTEA

Añana-Gesaltzara haranera irteera

Otsailaren 24-25

Larunbatean Nerbioi ibaia- ren sorlekura txangoa. Bertan 90 metroko urjauziaz gain, Araba, Burgos eta Bizkaiko mugan kokaturik egundoko ikuspegiak goza daiteke.

Igandean Badaia mendize- rrara (Eskolunbe). Arabako mendizerra honetan ipar eta hegoaldeko mendiek egiten duten mugaz eta beraiek sor- tzen duten kontrasteaz goza- tzeke parada dago. Bestalde, hainbat urtetan otsoen babes- leku eta otsaleku izan den inguru honetan oraindik arras- toak gelditzen dira.

Izen ematea: Txiribogan otsailaren 17a arte (mugatua).

Bilera eguna: otsailaren 20a 20.00etan Andatza K.K.E.n.

Eski alpino irteera Cauterets-era

Martxoak 3-4

Izen ematea: Txiriboga tabernan.

Fidantza: 5.000 pezeta.

Guztira: 12.500 (autobu- sa+ forfaitak + pentsio 1/2).

Epea: otsailak 19

Oharra: plaza mugatuak.

MAHUKA

BEHERADENAK %50ean

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



ZUMETA JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarrak
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaparez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

ARAETA JATETXEA

9. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA



Programazioa:

- ✘ 20:30etan harri-jasotzaileak: **Iñaki Perurena**
eta bere semea
- ✘ 21:00tan afaria: **Arkume jana**
- ✘ 22:00etatik aurrera: **Trikitixa Urko eta Iñakiren**
eskutik

Menua

Janaurrekoa

Makailao kokotxa rebozatuak

Txorizoa Parrilan

Makailao tortila

Arkumea (jendearen aurrean erreko
da nahi adina)

Entsalada letxua tipularekin
Patatak panadera erara

Gazta, menbriloa eta
intxaurreak

Txotx eta kafea

Prezioa: 3000 (BEZa barne)


Zubieta

Telf; 943 36 20 49- 36 66 42

Tolare-sagardotegia
Denboraldia
dagoeneko hasi da!



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

AGINAGA



Aginaga, Telf: 943 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan

Egin txotx!

Herriko

tolare

sagardotegietan!

ILLUNBE



Txokoalde, Telf; 943 37 16 49
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

iruin



Zubieta, Telf; 943 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

SAIZAR



Kalezar, Telf; 943 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita.

URDAIRA



Aginaga, Telf; 943 37 26 91
Egunero irekita, igande gauetan izan ezik.